

# Estetikoia



DIANA FRANCO EGUREN

**A**steburu honetan 'estetikoia' hitzaren inguruan pentsatzen aritu naiz, lagun batek esandako esaldi baten harira: "Lan hau estetikoia da". Estetikoia hitzaren etimologia aztertu dut, badirudi jatorrian zentzumene bidez hautematea zela bere esanahia, eta gerora edertasuna bilatzearekin lotu zen. Egungo gizartean, iruditzen zait edertasuna bilatzea eta itxurakeriaren beharra korapilatzen direla estetikoia hitzaren baitan. Nire laguna unibertsitateko irakaslea da eta bere lana estetikoia dela esaterakoan, adierazi nahi zidan bere lanari ez diola zentzu askorik ikusten, burokrazia baita bere egitekoaren gehiengoa, sistema meritokratiko baten barruan.

Estetikoia hitzaren erabilera honek, eremu fisikoan zein eremu digitalean, bizi dugun errealtatean alegia, egiten dugunak duen eraginaren norabideaz dihardu. Munduan eragiteko boterea galtzeaz dihardu. Egungo munduan, adibidez, zaurgarritasun handiena duten kolektiboen (genero aldetik, jatorri aldetik, gaitasun ekonomiko aldetik...) egoera konplexuen inguruan informazio eta datu ugari jasotzen gabiltza, beharrezkoa den lana, baina noraino ez da estetikoia? Gaurko errealtatean noraino du eragina? Boterea dutenek zein kasu egiten diote? Eta kasu egiten diogunok zein agentzia gaitasuna dugu?

Bizi dugun errealtatea estetikoia dela susmatzen baduzu, hau da, sisteman dugun egitekoari ez badiozu zentzu askorik ikusten, errealtateari forma ematen diotenen egiten dituzten ekintzen zentzuan arreta jarri, zergatietan. Soilik hortik aurkituko ditugu eragiteko bideak eta emango ditugu bizitzen dugun errealtatean eragiteko pausoak. ●



## Mugikorrik ez Brasilgo eskoletan

**AXIER LOPEZ**

**G**ure bizitzetan pantailen inbasioa azkartu da azken urteotan. Euskal Herrian, alde batetik, "pantailak euskaraz" nahi ditugula diogu ikus-entzunezkoen eskaintza handitzeko, eta bestetik, antolatzen gara umeei pantailek dakartzkien arriskuez ohartarazteko. Ez da gai erraza, baina gurean bakarrik ez, kezka mundu osora ari da zabaltzen.

Mugikorrek eskola barruan eragiten dituzten ondorio negatiboak buruzko azterlanak metatzen dira, dela arretagabeziagatik, dela sare sozialekiko mendekotasun goiztiarragatik, dela ikasleek antzietatea larriagotzeagatik. Egoera honen aurrean, hezkuntza komunitateak mobilizatzen ari dira, erabakiak hartzen. Munduko herrialdeen herenak murriztu egin du jada telefonoen erabilera eskoletan. Horien artean, pauso esanguratsua eman berri dute Brasilen.

Urtarrilaren 13an, Kongresuak lege bat onartu du "oinarrizko hezkuntzaren etapa guztietan, ikasleek tresna elektronikoa eramangarri pertsonalak erabiltzea debekatzeko, baita jolastokian edo klaseen arteko tartean ere". Hori dela eta, gailu horien erabilera erabat mugatu duen Erdialdeko eta Hego Amerikako lehen herrialdea da.

Erabakiaren gordintasunaz –erabateko debekua– aparte, azpimarratzekoa da legearen inguruan normalean elkarri mokoka aritzen diren indar politikoek lortutako adostasuna. Eskuin muturreko zenbait diputatuk baino ez dute aurka bozkatu, Jair Bolsonaro militar eta presidente ohiaren Alderdi Liberaleko kideak.

Haien ezezkoa era bitxi honetan argudiatu dute: ikasleek telefonoa aldean edukitzeko aukera izan behar dute, irakasleek "doktrinamendu-praktikak" grabatzeko eta "Brasilgo hezkuntza kutsatzen duen aktibismo ideologiko marxista" salatzeke. Edonola ere, Bolsonaroren alderdiko kongresukide batzuek ere onartu dute legea.

Arau berria datorren astean sartuko da indarrean, otsailean, ikasturte berriaren hasierarekin batera Brasilen. 15.100 delako legearen helburu nagusia da "haurren eta nerabeen osasun mentala, fisikoa eta psikikoa babestea". Eskoletako telefonoen erabateko debekua baditu salbuespen batzuk, hala nola erabilera pedagogikoa eta osasun-arrisku edo -arazoengatik premiazkoak diren zenbait kasutan.

Zenbait ahotsek legea positiboa dela adierazi badute ere, batez ere hezkuntza-komunitate osoaren artean gaiak eztaba da pizten duelako, batzuek kritikatu dute Brasilgo eskolak eta irakasleak ez daudela prestatuta irakaskuntzan teknologia berriak sartzeko, eta ez dagoela horiek txertatzeko proiektu pedagogikorik.

Denok Hezkuntzaren Alde eskola publiko unibertsal eta kalitatezkoaren aldeko mugimenduaren ustez, irakaslea "ordenagailuaren edo mugikorren pantaila baino garrantzitsuagoa da, teknologia ez du bera ordezkatzeko, baina ez da etsaia. Tresnak konbinatu behar dira. Paperezko liburua buruz ikasteko tresna hobea da, baina digitala egokiagoa da irakaskuntza pertsonalizatzeko eta askotariko beharri-zan eta interesei erantzuteko". ●